

Ezpalak

JON TORNER

Vasco Pratoliniren *Maitale koitaduen kronikak* eta Isaak Babelen *Zalditeria gorria* liburuak kaleratu dituzte euskaraz, Literatura Unibertsala bilduman. Lehen Mundu Gerran giro-tako bi lanak Koldo Bigurik (italieratik euskarara) eta Olga Martinez Marigortak eta Roberto Serranok (errusieratik euskarara) itzuli dituzte, hurrenez hurren.

Jose Luis Ramirez argazkilaria *Ibai Biziak* liburuan bildu dituen irudietako batzuk jarri ditu ikusgai Iruñeko Contraluz galerian. Nerbioi eta Ibaizabal ibaien argazkiez osatutako erakusketa hilaren 27a arte izango da zabalik.



Alberto Gorritiberearen *Eutsi* euskarazko filma martxoaren 9an estreinatuko dute. Besteak beste Anjel Alkainek eta Asier Hormazak hartu dute parte Irusoinen, Baleukok eta Barton Filmsek ekoitzi duten filmean.

Koldobika Jauregi eskultoreak, Xabier Morras pintoreak, Xabi Otero argazkilaria eta Fito Rodriguez idazleak Praileaitzen Lagunak elkarte sortu dute, Debako kobazulo hori babesteko asmoz. Izan ere, haitzulotik gertu dagoen harrobiak kobazuloan kalteak eragiten dituela diote elkartearen sustatzaileek.

Kea ganbera abesbatzak izen bereko diskoa kaleratu du. Abesbatzaren hirugarren lanak musika eta pintura uztartzen ditu. Keak azken hamar urteotako errepertorioetik hautatutako piezak eta Jon Santos pintorearen ilustrazioak bildu ditu disko-liburuan. Argitalpen berezia da. 999 ale atera dituzte, eta denak ezberdinak dira.

Txiki Agirre 'Keixeta' artista gipuzkoarraren izenik gabeko erakusketa dago ikusgai Donostiako Ekain galerian. Natura gogora dakarten 20 artelan inguru jarri ditu Keixetarako Ekain galeriako hormetan. Hilaren 26a arte izango da zabalik erakusketa.

New Yorkeko musikariak izango dira Bilbao Distrito Jazz jaialdian

MARTXOKO eta apirileko azken hiru ostiraletan jazz kontzertuak izango dira entzungai Bizkaiko hiriburuko hainbat aretotan, Bilbao Distrito Jazz jaialdiaren zazpigarren edizioaren baitan. Egitaraua Itxaso & Pera Yohaldre Trio taldeak Barrainkua kultur etxean eskainiko duen emanaldiak irekiko du, hilaren 16an. Hurrengo asteetan, Kataluniako bi talde (Rocío Falks Quintet martxoaren 23an eta Geny Barry Quartet apirilaren 21ean) eta New Yorkeko hainbat musikariren (Pete Robbins & Centric martxoaren 30ean; Bruce Arkin Quartet apirilaren 7an; eta Benny Lackner Trio apirilaren 28an) kontzertuez gozatzeko parada izango da. Benny Lackner Trio taldea 2002. urtean sortu zen eta adituen hitzetan, etorkizun oparoa duten musikariek osatzen dute. Euren emanaldietan kanta propioak eta estilo anitzetako autoreen obrak uztartzen dituzte.

Koldo Izagirrek *Prest!* aldizkarian: «Gaur egun dena dago bideratua inork ezer ez irakurtzeko.

Presaren munduan bizi gara, atertu bako informazio euripean eta, beraz, pentsamenduen galbidean. Pentsamenduak astia behar du, ikerketa, sakontzea (...) Literaturan, gainera, gauza bitxia gertatzen da: literatura komertziala dago modan, literatura arina...».

Karlos Osinaga Lisabö taldeko abeslariak *The Balde* aldizkarian: «Bada musikaren industrian krisi sakon bat, baina gogoratu behar dugu, musikariok ez dugula industria osatzen. Antzina, taldeak mugitzen eta grabatzen zuen bere maketa. Mugimendu hori galdu egin da eta berreskuratu beharra dago. Egun, taldeek diskoetxeetara jotzen dute nahiko balduta daudelako, eta egia

esan, prozesu hori kontrolatzea ez da hain korapilatsua».

Fito Cabrales musikariak *Noticias de Gipuzkoan: Operación Triunfo* bere kanta bat abestu zutela-eta: «Ikusi nuen. Nire ustez, behin kalean daudenean, kantak jada ez dira zureak. Ez da soilik *Operación Triunfo*. Nirekin zerikusirik ez duten musikari eta kanta asko daude. Baina gauza bera litzateke ni Fnac-en jarri eta nire diskoa erostera datorrenari halakorik ez egiten uztea, bere itxura gustuko ez dudalako. Zuk uste duzu mindu egiten nauela norbaitek nire kantak abesteak? 200.000 kantaren artean nirea aukeratu badute, harro egon beharko dut. Zer zerikusi dut *Operación Triunfo*-rekin? Batere ez, baina ezin dezaket esan: 'Ze putasemea! Zergatik abesten du nire kanta?'. Ez naiz hain harropuzta».



Film klasikoak eskainiko dituzte Donostiako Giza Eskubideen V. Zinemaldian



Sail Ofiziala osatuko duten filmez gain, Donostiako Giza Eskubideen V. Zinemaldian hamaika pelikula gehiago izango dira ikusgai martxoaren 16tik 23ra bitartean. Egitaraua Film Laburren Lehiaketak eta hiru ziklo osatuko dute: *Bigarren aukera* izenekoak (urtean zehar estreinatu diren Giza Eskubideen inguruko filmak bilduko ditu), *Indarkeria Euskadin* delakoak (zine-mak azken hamarkadetan indarkeriaren gaia nola jorratu den erakutsiko du) eta *Zineko klasikoak* izenekoak. Hirugarren

ziklo honetan mito bihurtu diren hainbat lan proiektatuko dituzte; *Paths of Glory* (1957), *I Want to Live!* (1958) eta *Bhowani Junction* (1956), besteak beste. Zinemaldiaren helburua hiritarren artean Giza Eskubideen inguruko gogoeta eta sentsibilizazioa bultzatzea da eta aurtengo edizioan ere, pelikulen emanaldiez gain beste zenbait ekintza antolatuko dira. Publikoak, adibidez, filmetako protagonistekin eta hainbat aditurekin hitz egiteko parada izango du. Informazio gehiago: www.cineyderechoshumanos.com.

Ni orain eta Emazteen artea: sorkuntza emakumearen ikuspegitik

EMAKUMEAK eta feminismoak gizartean duen egitekoari buruzko erakusketa zabaldu dute Andoaingo Bastero gunean. Pripublikarrak kultur elkartearen hiru proiektuk, Lucia Egañaren bi ikus-entzuzkok, *Motiva* erakusketako 20 kartelek eta Irene Ormazabal eta Ainhoa Guemes artisen ikus-entzuzkoak osatzen dute, besteak beste, apirilaren 4a arte zabaldik egongo den *Ni orain* erakusketa. Bestalde, Donibane Garaziko herriko etxean, Josette Dacosta aretoan, Mayor-ga galerian eta Laborde etxean hamalau emakumeren obrak jarri dituzte ikusgai, *Emazteen artea* egitasmoaren baitan. Erakusketan margolanak dira nagusi, baina argazkiak, eskulturak eta maskarak ere aurkitu ahal dira. Angela Moreno, Chris, Christine Etchevers, Florence Etchart, Jacqueline Lebrun, Josette Dacosta, Martine Pinsolle, Marie-Hélène Echevarria, Michèle Neurisse, NANE, Nicole Marsan, Patricyan, Rosa Valverde eta Zoe Bray artisten obrek osatzen dute hainbat aretotan banatutako erakusketa.

Sareinak. Feminismo

literarioak. Amaia Alvarez Uria, Josune Muñoz eta Iratxe Retolaza irakasleek eta Gema Lasarte kazetariak *Sareinak* izeneko literatur bloga (<http://eibar.org/blogak/sareinak>) sortu dute. Euren helburuak, besteak beste, emakume idazleen lanak ezagutzera ematea, literatura eta feminismoa euskaraz Interneten bidez lotzea eta emakumeek literatur esparruan sorturiko informazioa jasotzea dira. Euskal literaturari, emakume idazleei eta feminismoak bizi duen egoerari buruzko hainbat artikulua aurki daitezke bertan.

Maiatz aldizkariak 25 urte

bete ditu. Baionako *Maiatz* literatur aldizkariak 25 urte bete berri ditu. Denbora horretan 43 zenbaki kaleratu dituzte eta 44. zenbakia ere bidean da. Hurrengo astean kaleratuko dute eta ohi bezala estilo guztietako testuak bilduko ditu. Halaber, 25. urteurrena ospatzeko solasaldiak antolatuko dituzte maiatzean. Horrez gain, literatur aldizkariaren ondare osoa Interneten jartzeko asmoa dute. Ale batzuk Ibinagabeitia Proiektuaren web gunean (<http://andima.armiarma.com/maia/aurki.htm>) daude dagoeneko.

gure!
arteak
euskaraz

